

Sagardoa eta udako giro eguzkitsua, ezkontza perfektua

Ziortza Gazte Elkartek eta Zumarte Musika Eskola izan dira Sagardo Egunaren 42. edizioari hasiera emateko hautatutako eragileak



Borja Luna

A. Urbietta

Igandea, 18 maiatza 2025, 19:35 | Actualizado 20:13h.

Comenta

Guardar

Compartir

Antolakuntzaz arduratzen den taldean erreleboa egon ostean, indarberrituta itzuli da Sagardo Eguna Usurbilera, eta jendetza bildu du bere 42. edizioan. Herritar askorentzat urteko egun bereziena dena ospatzeko eguraldi aproposagorik ezin zuten eskatu, gainera, usurbildarrek. Sagardo tragoak gustura hartzera gonbidatzen zuen giro eguzkitsu eta epela.

Aukera zabala osatu du horretarako Sagardo Egunaren Lagunak taldeak: 39 postu kokatuko zituen herriko hiru puntutan: frontoian, Askatasuna nahiz Dema plazetan. Herriko baserri nahiz sagardotegietako edariak dastatzeko aukera izan dute bertaratu zirenek, baita Gipuzkoako hainbat udalerritatik eramandakoak ere: Aiako Izeta eta Satxota; Andoaingo Mizpiradi; Astigarragako Alorrenea, Bereziartua, Etxeberria, Gurutzeta, Irigoien, Mendizabal eta Oyarbide; Azpeitiko Añota; Ereñotzuko Larre-Gain; Errenteriako Egiluze; Hernaniko Akarregi, Alberro eta Goiko Lastola; Lasarte-Oriako Otegi; Oiartzungo Ordo-Zelai; Tolosako Eguzkitza; eta Urnietako Altuna, Eula eta Oianume. Pintxo aukera ere ederra izan da, noski eguerdiko menua osatzeko.

Omenduak

Eguerdia baino lehen eman zaio hasiera festari eta herriko bi eragilek izan dute oholtza gainetik egunari gorazarre egiten dion lehen topa hori eskaintzeko ardura. Ziortza Gaithe, Etxepare eta Etxepare, Mendizabal eta 40 urte betetzen dituzte aurten. «Egun honetan, 40 urte bete aintzatespena eman nahian S... antolatzaileek. Hala Aitor Bau... izenean, oholtza gainera igo e... dute. «Eskerrik asko Usurbill... bete dute erritua.

Eguerdiko giro paregabeari m... partean Elektrotxorongo Elek... zehar giro berotuz. Aurretik, b... ikastolan.

